

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2011-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoaren eta Sozietate Publikoen fiskalizazio txostena mamitu du, 2011ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena Osoko kideen gehiengoarekin onetsi da eta horietako batek baterako boto partikularra egin du.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Gainera, sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk adierazi du Diru-bilketarako Erregelamenduak zerga zorrak geroratzeko eskabideak ebazteko ezarritako gehiengo epea ez dela bete; zerga zor horiek 42,4 milioi euro ingurukoak izan dira eta horrek ordainketa planik ez zehaztea eta dagozkion bermeak ere ez eskatzea ekarri du.

Langile gastuei dagokienez, azpimarratzekoa da 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin Diputatu Kontseiluak soldata masa % 5 murrizteko neurrietako bat baliogabetu zuela; neurri horiek Diputatuen Kontseiluak 2010ean adostu zituen, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzeari buruzko 8/2010 LED betez; honenbestez, neurria baliogabe uzteak urratu egiten du aipatutako LEDren helburua.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan, hona hemen azaleratu diren salbuespenak: hornidura kontratu batean onartua izateko baldintza modura lurraldean finkatua egotea eskatzen da eta hori diskriminatzailea da; obra kontratu batean aldaketa bat egin da onartua izan aurretik; zerbitzuak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatu dira, publikotasun printzipioa gorde gabe prozedura hori erabiltzeko bide ematen duten arrazoiak egiaztatu gabe; kontratuak zatikatu dira esleipen prozedurari buruzko betekizunak saihestuta, 14 kasutan.

Diru-laguntzei dagokienez, HKEEk azpimarratu du Diputatuen Kontseiluak 5,7 milioi euroren diru-laguntza zuzenak eman dizkiela toki erakunde, enpresa, irabazi asmorik gabeko erakunde eta erakunde publikoei, dagokion publikotasun eta lehia sustatzeko ezintasuna batere justifikatu gabe.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEk aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik garrantzi txikiko hainbat kontularitzako doiketa (Diruzaintza Geldikina 20,8 milioi euroan gehitu dutenak) eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehakatu izana. Berebat, azpimarratzekoa da Europako Batzordeak Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean jarritako salaketari dagokionez dagoen zalantza egoera, 7/1997 eta 7/1996 Foru Arauetan, hurrenez hurren, ezarritako dedukzio eta hobari fiskalak berreskuratzeko beharrezko diren neurriak ez hartzeari buruzkoa.

Txostenak, gainera, Erakunde Autonomoa eta lau Foru Sozietate Publikoak fiskalizatu ditu eta HKEEren iritzia aldekoa izan da, txostenean jasotako unean uneko hainbat salbuespen alde batera, nagusiena Bidegi, SArekin 14,9 milioi euroan izenpetutako bost kontraturen lizitazioan erkidegoan publikotasunik ez eman izana delarik. Urteko kontuei dagokienez, Etorlur, SA auzian ez dago indarrean diren izakinen balioa balio garbi egingarriaren arabera egiaztatzeko behar hainbateko informaziorik, 33,1 milioi euroren zenbatekoan.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Finantza Analisiaren atalean, 2011n aurrekontu exekuzioak aurreko ekitaldiarekiko okerrera egin duela azpimarratu da, izan ere zerga sarrerek behera egin dute eta gastu arrunta ez da murriztu; horrek aurrekontu emaitza negatiboa eragin du, inbertsioetan aurrekia handia izan den arren; berebat, 2011ko ekitaldi itxieran erabilitako zorpetzearen berri ere ematen du, 537,6 milioi euroena izan delarik Aldundiari dagokionez eta 802 milioi euroena Bidegi, SAn.